

A tall, white industrial chimney with red and white horizontal stripes and the Petronor logo is visible against a clear blue sky. In the foreground, there are branches of cherry blossoms in full bloom, with pink flowers and green leaves. The image is partially obscured by a dark blue diagonal banner on the right side.

Iraunkortasun Plana 2020

Aurkezpena







A photograph of industrial machinery, featuring several large, blue-painted metal pipes and structural beams. The pipes are arranged in a complex network, with some curving and others running straight. The lighting is bright, highlighting the metallic surfaces and the blue paint. The image is partially obscured by a dark blue diagonal overlay on the right side.

AURKEZPENA

IRAUNKORTASUN
PLANA
2020

Petronor



1	Iraunkortasunaren gure ikuspegia	5
2	2020ko Iraunkortasun Plana	6
	2.1 Garapen Iraunkorraren helburuak	6
	2.2 Laburpena	8
	 2.3 Etika eta gardentasuna	9
	 2.4 Pertsonak	11
	 2.5 Eragiketa segurua	17
	 2.6 Ingurumena	19
	 2.7 Aldaketa klimatikoa	26
	 2.8 Berrikuntza eta teknologia	28
3	Plana eguneratzeko prozesua	30

Legezko Oharra

Iraunkortasun Plan honek ekintza-multzoa du eta oso-osorik ala zati batean legeak eskatzen duenetik urrunago doa. Beren helburua garapen iraunkorrari ekarpena egitea da. Petronor taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egin eta betetzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzeko orduan aldatu, atzeratu edo indargabetzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe. Ildo horri eutsiz, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2020: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau Petronor, S.A. ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu. Pertsonen oinarrizko eskubideak betetzeko ezinbestekoa den gorako energia-eskea asetzen saiatzen gara eta, aldi berean, epe labur eta ertainean balioa ematen diogu.

Gizartean eta ingurumenean **eragin positiboak maximizatu eta negatiboak minimizatzen ditugu** gure balio-katean zehar eta, horretarako, jarraibide etiko eta gardenaz baliatzen gara. Hala, indarreko araudia betetzeaz gain, nazioarteko estandar nagusiak kontuan hartzen ditugu.

Abiapuntu horietatik, gure iraunkortasun ereduak erabakiak hartzean alderdi etiko, ingurumenaren inguruko eta sozialei erreparatzen die eta interes-taldeekin elkarrizketak izaten dira aurretik. Urtero egiten dugun jarduketara da, eta horren ondorioz sortzen diren ekimenek erantzuna ematen diete interes-taldeok maila globalean eta tokian-tokian dauzkaten kezkei.

Hala sortu dira **Iraunkortasun Planak**, urteko ekintza-plan publikoak. **Iraunkortasun Plan Globala** ibilbide-orria da, eta, bertan oinarrituta, Tokiko Planak hedatzen dira. Azken horiek, gainera, tokiko testuinguruarekin lotutako konpromisoak ere hartzen dituzte kontuan.

Iraunkortasun Plana Petronorren Iraunkortasun Ereduaren sei ardatzen inguruan egituratzen da.



Etika eta gardentasuna

Gauden toki guztietan arduraz eta zintzotasunez jarduten dugu



Pertsonak

Pertsonen aldeko apustua egiten dugu eta beren garapena nahiz gizarte-ingurunearena bultzatu ere bai



Eragiketa segurua

Gure langileen segurtasuna, kontratistena, bazkideena eta tokiko erkidegoarena bermatzen dugu



Ingurumena

Energia-eraginkorrena sortzeko ezinbesteko baliabideak kontsumitzen ditugu, ahalik eta eragin txikienarekin



Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoaren konponbidearen kide izan nahi dugu



Berrikuntza eta teknologia

Berrikuntza sustatzen dugu eta aurrerapen teknologikoak erantzen ditugu gu eta gure ingurunea hobetu eta hazteko

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

Petronorren, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako **2030eko Agenda** babesten dugu, eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) jotzen ditugu erreferentziatuz, geure lehentasunak zehazteko orduan.

Gure ustez, batez ere, eragin handieneko helburuetarantz bideratu behar dira ahaleginak. Horretarako, konpainiaren plan estrategikoa, materialtasunaren azterketako gai nabariak eta jasangarritasunerako plan guztietako tokiko ekarpena kontuan hartuta, honako GJH hauek hautatu dira:

Energia eskuratzeko orduan daukagun zeregina, garapen sozioekonomikoan dugun ekarpena eta klima-aldaketaren aurkako borroka direla eta, 7., 8. eta 13. GJHei ematen diegu lehentasuna.

Guretzat, beste erakunde batzuekin lan egitea da 2030eko Agendan ekarpena egiteko modu eraginkorra.

Hori dela eta, jasangarritasuna sustatzen duten ekimen pribatu-publikoekin bat egiten dugu.

Uraren kudeaketaren hobekuntzarekin dugun konpromisoa eta Berrikuntzari zein Teknologiarri eta Ekonomia Zirkularrari ematen diegun laguntza kontuan hartuta, bigarren, 6., 9. eta 12. GJHei ematen diegu lehentasuna.



2020an, beste aurrerapauso bat eman dugu garapen jasangarriaren alde egin dugun apustuan, GJHetan dugun ekarpenari buruzko urteko txostena argitaratu dugulako lehen aldiz.

2030eko Agendan egiten dugun ekarpena gardena izatea nahi dugunez, konpainia osoan maila globalean nahiz tokian-tokian egiten ditugun ahaleginen egoera orokorraren inguruko 30etik gora adierazle eta konpromiso argitaratzen ditugu, gainerako eragileekin batera gainditu behar ditugun erronka sozialetarako irtenbideak eskaintzeko asmoz.

Ingurumen eta gizarte arloko aldaketako eragile izan nahi dugu lan egiten duguneko lurraldeetan. Behar ditugun baliabideak, gogoia eta, batez ere, konpromisoa ditugu. Horixe bera da gure asmoa, eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendak hori egia bihurtzeko bidea zein den adierazten digu.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



Petronor



Iraunkortasun Plana
Petronor
2020 / 15 Ekintza




Etika eta
gardentasuna

EKINTZA 1




Pertsonak

5 EKINTZA



Eragiketa
segurua

EKINTZA 1



Ingurumena

6 EKINTZA



Aldaketa
klimatikoa

EKINTZA 1



Berrikuntza
eta teknologia

EKINTZA 1

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Kokagune ditugun herrialde guztietan **zintzoki dihardugu**. Gure jarraibide etikoarekin, legea zorrozki betetzeaz gain, bere espirituari erreparatzen diogu.

Ardatz honetan konpainiak Petronorren langile guztientzat, baita gure hornitzaile, kontratista eta enpresa laguntzaileentzat ere **kultura zintzoa eta arduratsua** sustatu eta bultzatzen duela ziurtatzeko ekintzen multzoa zehazten da.

Gainera, **gardentasuna eta kontuak ematea** defendatzen dugu Petronorren iraunkortasun-ereduaren elementu bereizgarri gisa. Sinesgarria izateko, modu eutsian gardena izatea oinarritzkoa da. Jendaurrean, zerga-arloan konpainia zintzoa eta gardena garela aitortzea nahi dugu. Hori dela eta, EITira (Extractive Industries Transparency Initiative) atxikita gaude, administrazioekin lankidetzapean ditugun harremanak indartzeko.

Iraunkortasun Plan honetan arloan konpainiak proposatu dituen erronkak lortzeko ekintzak onartu dira. Horrez gain, alde interesdunen itxaropen nagusiei erantzun nahi zaie.



EKINTZA

Zerga-erakundeekin lan egitea, zerga-iruzurra saihesteko.

DESKRIBAPENA

Fakturazioari begira, behar besteko softwarea ezarriko dugu, Bizkaiko Foru Ogasuneko "TicketBai" Proiektura atxikitzeko. Horrela, Euskadiko ogasunei lagunduko diegu Petronor S.A. konpainiako jarduerak sortzen dituen diru-sarrerak kontrolatzen, zergarik ez saihesteko.

ADIERAZLEA

2020ko uztailean, azaldutako sistemaren ezarpena lortzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gure langileak, erkidegoak, merkataritza-harremanak eta bezeroak gure iraunkortasun-ereduan ardatz nagusi dira.

Jakitun gara **Petronor osatzen duten pertsonak** gure lehen abantaila lehiakorra direla, baita **konpainia iraunkorra izateko gakoa ere**. Aukera-berdintasun, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen integrazio, kultura aniztasun, lanbide-biziaren eta pertsonaren arteko oreka, prestakuntza eta garapen nahiz talentua erakarri eta atxikitzearen aldeko apustua egiten dugu.

Enpresa-jarduera gero eta gizarte-ingurune zorrotz eta jakitunagoan gauzatzen da eta konpainiek ahaleginak egiten ditugu **elkarrekintzan dihardugun eragileekin harreman sendoak ezartzeko**. Ildo horri eutsiz, bereziki erreparatzen zaie gure eragiketetikiko erkidego hurbilei. Errespetua, kultur sentikortasuna, zintotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, fede ona eta diskriminaziorik eza dira gure oinarriak. Petronorren giza eskubideak errespetatzen jarraitzeko konpromisoa dugu. Hala, gure jarduerak eta erabakiek inguruneke pertsonengan ondorio negatiboak ez izaten saiatuko gara. Dena den, gertatuz gero, eragindako kaltea konpontzeko ahaleginak egingo dira.

Ardatz honek hurrengo ekimenak ditu.



EKINTZA

Geure langileen artean Nazio Batuen 2030eko Agenda zabaltzea.

DESKRIBAPENA

Geure langileei 2030eko Agenda eta garapen jasangarrirako 17 helburuak emango dizkiegu jakitera barruko newsletterren bidez. Sektore pribatuaren zeregina nabarmenduko dugu, baita Petronorrek dituen erronkak ere, bere ekarpena ahalik eta handiena izan dadin.

ADIERAZLEA

Hamabi "newsletterretan", 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburu guztien enuntziatua eta azalpena zabalduko ditugu.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Lantegi kimikoko operadoreak prestatzea eta kontratatzea.

DESKRIBAPENA

Berrogei lagun prestatuko ditugu lantegi kimikoko operadore moduan. Prestakuntza gaituz gero, langile-taldea dimentsionatzeko premien arabera, prestakuntzaren helburu izan diren lanpostuetan hasiko dira lanean.

ADIERAZLEA

Prestakuntza-ikastaro horretako hogeita hamabost lagun kontratatzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Graduetako eta unibertsitateko prestakuntza duala egitea.

DESKRIBAPENA

Lanbide-heziketako eta unibertsitateko prestakuntza duala emango dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzak Sailak baimendutako titulazioetan.

ADIERAZLEA

Sei laguni unibertsitateko prestakuntza duala egiteko aukera ematea.

Sei laguni lanbide-heziketako prestakuntza duala egiteko aukera ematea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Gizarte-bazterketarako arriskuan daudenentzako enplegua sustatzea.

DESKRIBAPENA

Ekonomia sozialeko enplegua bultzatuko dugu Burdingintza Integraleko Fundazioaren (FSI) laguntzaz, zuzenean edo autoenplegurako banakako ekimenen bitartez.

ADIERAZLEA

Hamar langabetu Itsas lur proiektuan kontratatzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



2020ko Iraunkortasun Plana

Pertsonak



EKINTZA

Langabetuen enplegarritasuna hobetzea.

DESKRIBAPENA

Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, lantegi kimikoko operadoreentzako trebetasunei buruzko prestakuntza emango diegu langabetuei.

ADIERAZLEA

30 langabeturi prestakuntza ematea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gure asmoa **Zero Istripu** lortzea denez, segurtasun-maila handia eskatzen dugu geure prozesu eta instalazioetan, eta lehentasun berezia ematen diegu pertsonen babesari eta geure inguruneari. Era berean, geure **hornitzaile eta kontratisten** sentsibilizazioa ere lantzen dugu.

Segurtasuna eta ingurumena balioaren sorrerarako, bikaintasunerako eta erantzukizunerako oinarria direla jakin badakigunez, **2025erako Segurtasun eta Ingurumeneko Estrategia** jaulki genuen 2018an. Jarduketarako funtsezko giltzarriak zehaztu ditugu, eta, 2025. urteari begira, konpainiak bertan egingo ditu ahaleginak segurtasunaren arloan: kultura, lidergo eraldatzailea eta segurtasunaren zein ingurumenaren arloko sentsibilizazioa bultzatuko ditugu. Esparru horretan, giltzarrietako bat **gure prozesuetako segurtasuna** da, eta, bertan, industriako liderrak izan nahi dugu honako hauexen bidez: geure arriskuen kudeaketa, geure instalazioen osotasuna eta krisiari zein larrialdiei aurre egiteko prestakuntza onena.

Gure konpromisoaren adierazgarri, segurtasunaren helburuek %15etik gorako **eragina** izan dezakete gure langileen **ordainsari aldagarrian**.

Hona hemen segurtasunarekin daukagun konpromisoaren adierazgarri diren ekintzak.



EKINTZA

Herritarren segurtasuna ardurapean duten erakunde publikoekin batera, prestakuntzako jarduerak egitea.

DESKRIBAPENA

Herritarren segurtasuna ardurapean duten erakunde publikoekin batera egingo ditugu prestakuntzako jarduerak: Foru Suhiltzaileak eta Ertzaintza. Erakunde horien koordinaziopean, industriaren zein pertsonen segurtasunerako sistematika garatuko dugu findegian nahiz inguruan.

ADIERAZLEA

Bi jarduera bateratu egitea, hau da, findegiko suteen aurkako sistemen inguruko prestakuntza eta simulakroak.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizartearen kezkarekin bat gatoz, bizileku dugun ingurumena zaindu beharra dagoela esaten denean. **Gure eragiketen eragina ahalik eta txikiena** izatea nahi dugunez, airerako isuriak murrizten ditugu, uraren kudeaketa hobetzen dugu, hondakinak kudeatzen ditugu, isurien karga kutsatzailea gutxitzen dugu eta isurien prebentziorako zein erantzunerako sistemak hobetzen ditugu, biodibertsitatea funtsezko elementua dela kontuan hartuta.

2018an, 2025erako Segurtasun eta Ingurumeneko Estrategia jaulki genuen, eta, bertan, jarduketarako funtsezko lerroak zehazten dira. 2025. urteari begira, konpainiak bertan egingo ditu ahaleginak ingurumenaren arloan: ingurumeneko **eraginak eta menpetasunak kuantifikatzeko eta balioesteko** gai izan behar gara, negozioari buruzko erabakiak babesteko. Horretarako, faktore kalteberenei ematen diegu lehentasuna, gauden lekuan gaudela ere, baina, batez ere, urari. Era berean, lizentzia sozialari eustea ere izango dugu jomuga, gure proiektu eta eragiketen bizi-ziklo osoan garatutako **ingurumen-kudeaketa bikain** bezain jasangarriaren bitartez. Horretarako, aukera berrien sorrera sustatzen dugu **ekonomia zirkularraren** arloan, eta eraginkortasunez erabiltzen ditugu baliabide naturalak, gehieneko eraginkortasunaren, gehieneko gardentasunaren eta gutxieneko ingurumen-eraginaren irizpideen bitartez.

Iraunkortasun Plan honetan Petronorrek iraunkortasun-ardatz honetan dituen lan-ildoekin lerrokatutako ekintzak onartu ditu.



EKINTZA

Ur azidoen ahitzaileko eraginkortasun energetikoa hobetzea.

DESKRIBAPENA

loi Amonioaren aztergailuak jarriko ditugu zenbait unitatetako ur azidoen ahitzaileetan, lurrunaren kontsumoa hobetzeko eta Findegiko Ur Araztegirako ur-efluentearen kalitatea hobetzeko.

ADIERAZLEA

Kargako lurrunaren kontsumoaren ratioa %5 murriztea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Etenaldietan sortutako eta zabortegira eramandako hondakina gutxitzea.

DESKRIBAPENA

Artapenerako antolatutako etenaldietan sortutako hondakinak banatuko ditugu sorlekuan bertan. Hondakin horien berrerabilpenari edota birziklapenari emango diegu lehentasuna, azken helmugatzat hartutako zabortegira bidali beharrean.

ADIERAZLEA

Etenaldian sortutako eta zabortegira bidalitako hondakinak %50 murriztea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Hozteko sistemetan, uraren erabileraren eraginkortasuna handitzea.

DESKRIBAPENA

Findegiko Ur Araztegia (FUA) kudeatuko dugu, zikloak gehitzeko (bost daude gaur egun) eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko hornikuntzako ura gutxitzeko.

ADIERAZLEA

Hozteko sistemetan erabilitako uraren zikloak bostetik seira gehitzea.
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hornitutako ura ehuneko bost (%5) murriztea eta, horretarako, "petrolioa/hornitutako ura" ratioa ezartzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Uraren hornikuntza baliabide industrial moduan dibertsifikatzea.

DESKRIBAPENA

Bideragarritasun-azterketa egingo dugu, ustezko hartzaileak diren prozesuetan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Muskizen daukan lantegian araztutako etxeko ura erabiltzeko.

ADIERAZLEA

Azterlana 2020ko abenduaren 1a baino lehen esleitzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Konponketetako eta zama-lanetako hondar-hidrokarburoen hondakinak balorizatzea.

DESKRIBAPENA

Prozesatzeko eta balorizatzeko asmoz, itsasontzietako andel zein kindurtzetatik datozen eta lasta kentzean sortzen diren hidrokarburoak jasoko ditugu. Kasuan kasuko administrazioek baimendutako kudeatzaileekin egingo ditugu hitzarmenak.

ADIERAZLEA

Hitzarmena, akordioa edo kontratua egingo dugu hondakin horietako kudeatzaile baimendu batekin.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Eskolako eta ingurumeneko borondatezko lana sustatzea.

DESKRIBAPENA

Ikasleen eta beste batzuen borondatezko lanaren bidez, Muskizen basoko suteen ondorioz hondatutako eremuak berrituko ditugu, Bizkaiko Landa Ingurunea Kudeatzeko Sailaren koordinaziopean.

ADIERAZLEA

Erretako basoko bost hektarea berritzea.
100 ikasle boluntario mobilizatzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizartea bezala, geu ere kezkatuta gaude **giza jarduerak kliman duen eraginagatik**, eta konpromiso irmoa dugu planetako batez besteko tenperaturaren gehikuntza **2° C-en azpitik mugatzeko** asmoarekin, industriaren aurretiatzko mailak kontuan hartuta.

Energia segurtasunez, eraginkortasunez, irisgarritasunez eta jasangarritasunez hornitzea da gure erronka, eta, horretarako, negutegi-efektuko gasen (NEG) isuriak murrizten ditugu, Pariseko Hitzarmenaren helburuak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontuan hartuta.

2050. urtean zero isuri garbi daukan konpainia izatea daukagu helburu, sektorean asmo handiko xede hori bere gain hartzen duen lehenengo konpainia, alegia. Aurrerakuntza teknologiko eskuragarrien bidez, aurreratu egiten dugu gutxienez %70 murriztuko ditugula urte horretarako isuri garbiak. Era berean, behar besteko konpromisoa ere hartu dugu, kopuru hori handitzen duten teknologia hobeak ezartzeko, haien artean CO₂ atzemateko, erabiltzeko eta biltegitatzeko prozesua kontuan hartuta. Horrez gain, hori guztia nahikoa izango ez balitz, basoa berrituko dugu, eta klimaren arloko beste irtenbide natural batzuk ere jarriko ditugu abian, isuri horiek konpentsatzeko eta 2050ean zero isuri garbi lortzeko.

Alde horretatik, Oil and Gas Climate Initiativera (OGCI) gaude atxikita, jarduketa zein irtenbide teknologiko onenak partekatuzko, OGCI Climate Investment inbertsio-fondoan parte hartzeko eta, horrela, NEG isuriak nabarmen murrizten laguntzen duten teknologien garapenari begira hamar urtean egin beharreko 1.000 milioi USD-ko inbertsioa bideratzeko.

Hona hemen Jasangarritasun Planean ardatz horrekin lotuta dauden ekintzen zerrenda.



EKINTZA

Hidrogenoa lortzeko prozesua hobetzea.


DESKRIBAPENA

Platformaturako prozesuan sortutako hidrogenoaren (H₂) metaketa hobetuko dugu, gas hori sortzen duten unitateetan H₂ kopuru hori ez sortzean karbono dioxidoa murrizteko.

ADIERAZLEA

2020an, gutxienez 29.000 tona karbono dioxido murriztea.
Guztira, 13,3 milioi euro inbertitzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...


Etorkizun iraunkorrek **zientzian eta teknologian inbertitzen duten konpainiak** eskatzen ditu, egungo eta etorkizuneko energia-erronkari egiazko konponbideekin aurre egiteko. Berrikuntza teknologikoa ingurunean energia-sistema eraginkor eta iraunkorragoak sortzeko elementua delakoan gaude.

Petronorren, **unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin sarean lan egiteko** apustua egiten dugunez, asmo handiko ideiak abian jartzeko prozesua sustatzen dugu, gainditu behar ditugun erronka energetikoei aurre egiteko eta, horrela, ingurumenarekin konpromisoa duen etorkizun jasangarria eratzeko.

Teknologia ezin azkarrago bilakatzen ari da, eta aurrerakuntza teknologikoak sortzen diren unean bertan ezartzeko gai izan behar gara. Hori dela eta, asmo handiko programa dugu digitalizaziorako, konpainia eraldatuko du, aldaketa kulturala sustatuko du eta, horri esker, irtenbide digitalak garatuko ditugu energiaren kontsumo-modu berriei aurre egiteko.

Era berean, aliantzak bultzatu eta enpresen hazkuntza sustatzen dugu honako honexekin lotutako garapen-bideko arloetan: eragiketetako fidagarritasuna, ekonomia zirkularra, mugikortasun aurreratua, dibertsifikazio energetikoa, material berriak eta araketan zein ekoizpenean ezarritako teknologia digitalak.

Jasangarritasun Plan honetan, honako ekintza hauen inguruko konpromisoa hartu da, Petronorrek Jasangarritasun Ereduaren ardatz horretan dituen lan-lerroen arabera.



EKINTZA

Sorkuntza elektriko jasangarrirako sistema egitea eta bere kontsumoa 0 kilometrokoa izatea.

DESKRIBAPENA

Hitzarmenak egingo ditugu instituzioekin, enprekin eta beste erakunde batzuekin, sorkuntza elektriko jasangarrirako zentroak, metaketarako sistemak eta banaketarako sare txikien kudeaketa abian jartzeko.

ADIERAZLEA

Atxikimendurako hiru hitzarmen sinatzea.
Energia berriztagarriaren metaketa orduko 330 Kw-koa izango dela hitzartzea.

GIHEKIKO EKARPENA:



Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da.

Urtero planeko ekintzen lortze-mailaren berri emango dugu eta, horretarako, ixte-txostena argitaratuko da.

Bestalde, gure alde interesdunei kezkatzen dizkieten itxaropenak eta gaiak aldakorrak direnez eta urtean zehar izandako gertakarien arabekoak direnez, Plana urtero ekintza berriekin edo indarrekoak berriz formulatuta eguneratuko da. Helburua egoera berrira egokitzea izango da.

Planaren ondoz ondoko eguneratzeek betetako ekintzen itzala utziko dute eta batera hartuta, gure konpainiak garapen iraunkorrari egindako ekarpena da.







Petronor

www.petronor.eus